

EUSKARA IKASTAROAK

2013ko UDA

ESKOLA-ESKAERAK BIDERATZEKO JARRAIBIDEAK

www.ivap.euskadi.net

**EAE-KO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA BERE ERAKUNDE
AUTONOMOETAKO LANGILEENTZAT**

UDAKO IKASTAROAK 2013

(uztaila / abuztua / iraila)

1.- Udako euskara ikastaroen helburua

Ikasleek 2012-2013 ikasturtean egindakoa finkatu eta sendotzeko helburuz eskaintzen ditu IVAPek udako euskara ikastaroak.

IVAPek, beti ere, bere aurrekontu bitartekoen arabera finantzatzeko ditu deialdi honetan eskaintzen diren udako euskara ikastaroak.

2.- Nork eska dezake udako ikastaroa?

EAEko Administrazio Orokorreko edo bere menpeko erakunde autonomoetako langileek.

EAEko herri-administrazioetako euskararen normalizazio prozesua arautzen duen 86/1997 Dekretuari jarraiki, deialdi honetatik kanpo geratzen dira irakasleak, ertzainak eta Osakidetzako nahiz Justizia Administrazioako langileak.

3.- Udako ikastaroek bete beharreko baldintzak

- Ikastaroak HABEk homologatuak izan behar dira.
- Euskaltegi publiko edo pribatu homologatuek eman behar dituzte.
- Gutxienez **80 ordukoak** izan behar dute.
- Autoikaskuntza bidezko ikastarorik ez da onartuko.

4.- Eskabideak egiteko prozedura

Pertsona bakoitzak, gehienez, hiru ikastaro eska ditzake.

4.1 Lanorduetako eskabideak:

Bi modu daude eskaera egiteko:

- a) **Ordenagailu bidezko eskaerak.** Langileak bere lanpostuko ordenagailutik egin ahal ditu eskabideak, euskara ikastaroak kudeatzeko aplikazioaren bitartez, helbide honetan:

www.ivap.jakina

(Aplikaziora sartzeko, egin klik “euskara ikastaroak” ikonoan, eta gero, Nire prozesuak izeneko menuan)

Egindako eskaerak dagokion sailak jasoko ditu eta bertan onartuko edo ukatuko dira.

- b) **Inprimaki bidezko eskabideak.** Inprimakiak honako helbide elektronikoan daude:

www.ivap.euskadi.net

(euskara>euskara ikastaroak>udako ikastaroak)

Interesatuak eskaera-orria inprimatu eta bere Zerbitzu zuzendariari bidali behar dio.

Lanorduetako eskaerak sail bakoitzean jasoko dira eta bertan onartuko edo ukatuko dira.

4.2 Lanorduz kanpoko eskabideak:

Lanorduz kanpoko ikastaroetan ere bi modu daude eskaera egiteko:

- a) **Ordenagailu bidezko eskaerak.** Langileak bere lanpostuko ordenagailutik egin ahal ditu eskabideak, euskara ikastaroak kudeatzeko aplikazioaren bitartez, helbide honetan:

www.ivap.jakina.

(Aplikaziora sartzeko, egin klik “euskara ikastaroak” ikonoan, eta gero, Nire prozesuak izeneko menuan)

Eskaerak IVAPen jasoko dira eta bertan kudeatuko dira.

b) **Inprimaki bidezko eskabideak.** Inprimakiak honako helbide elektronikoan daude:

www.ivap.euskadi.net

(euskara > euskara ikastaroak > udako ikastaroak)

Interesatuak eskaera-orria inprimatu eta IVAPera bidali behar du (Donostia kalea 1, 01010 Gasteiz).

Lanorduz kanpoko eskaerak IVAPen jasoko dira eta bertan onartuko edo ukatuko dira.

5.- Erantsi beharreko dokumentazioa

Aldi baterako langileek ikastaroak dirauen bitartean Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrekin lan-hitzarmena dutela egiaztatu beharko dute. Horretarako, eskaera-orriarekin batera, beren Zerbitzu zuzendariak sinatutako agiria aurkeztu beharko dute. Agiriak eskaera-epe barruan sinatutakoa izan beharko du eta kontratuaren hasiera eta bukaera egunak adieraziko ditu.

6.- Eskaera egiteko epea

Lanorduetako zein lanorduz kanpoko eskabideak aurkezteko epea honakoa da: **maiatzaren 9tik 25era**.

7.- Ordu-kreditua lanorduetako ikastaroetan

Lanorduetako ikastaroei dagokienez, ordu-kredituak ezartzen dituen Aginduaren ildotik (Agindua, 2004ko apirilaren 30ekoa, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko langileen euskalduntzean aplikatuko diren ordu-kredituak ezartzen dituen; EHAA: 2004-5-7; 85. zk.a), IVAPek modu honetan egingo du ordu-kredituaren kontrola udako ikastaroei begira:

- 2012/13 ikasturtea urrian lanorduetan hasi zuten ikasleei ikasturtea hasi aurretik aplikatu zitzaizen ordu-kredituaren kontrola; beraz, udako deialdian ez zaie berriro aplikatuko. Ondorioz, ikasturtea urrian lanorduetan hasi zuten ikasleek udako deialdian parte hartu ahal izango dute nahiz eta udako eskaera egiten dutenean ordu-kreditua negatiboa izan. Edozelan ere, udako ikastaroetan lanorduetan emandako orduak ordu-kreditutik kenduko dira, ikasturtean zehar emandako gainerakoak bezalaxe.

- 2012/13 ikasturtea otsailean lanorduetan hasi zuten ikasleei otsaileko ikastaroa hasi baino lehen aplikatu zitzaizen ordu-kredituaren kontrola; beraz, udako deialdian ez zaie berriro aplikatuko. Ondorioz, ikasturtea otsailean lanorduetan hasi zuten ikasleek udako deialdian parte hartu ahal izango dute nahiz eta udako eskaera egiten dutenean ordu-kreditua negatiboa izan. Edozelan ere, udako ikastaroetan lanorduetan emandako orduak ordu-kreditutik kenduko dira, ikasturtean zehar emandako gainerakoak bezalaxe.

- Azkenik, 2012/13 ikasturtea udan lanorduetan hasiko duten ikasleei eskaera egin orduko aplikatuko zaie ordu-kredituaren kontrola, eta saldo negatiboa dutenak ezin izango dira eskolan hasi. Hau da, ikasle horiek udako ikastaroa lanorduetan egin ahal izateko, aldeko saldoa izan beharko dute; bestela, IVAPek bazter utziko du eskaera. Aurreko kasuetan bezala, udako ikastaroetan lanorduetan emandako orduak ordu-kreditutik kenduko zaizkie.

8.- Udako ikastaroen antolamendua

- Baldintzak betetzen ez dituzten eskaerak ukatu egingo ditu IVAPek, eta Zerbitzu Zuzendaritzei ukapenaren berri emango die, arrazoiak azalduz.
- Baldintzak betetzen dituzten eskaeren kasuan, IVAPek matrikula orriak bidaliko ditu Zerbitzu Zuzendaritzetara, bai lanorduetakoak bai lanorduz kanpokoak, interesatuei banatzeko. Interesatuak

eurak matrikulatuko dira aukeratzen duten euskaltegian. Horretarako, matrikula orria aurkeztu behar dute euskaltegian.

- Langilea inon matrikulatzen ez bada, ahalik eta lasterren itzuli behar du matrikula orria IVAPera.
- Normalean, euskaltegi bakoitzak bere eskaintza berezitua egiten du, eta egutegiak, iraupena, ikasgelak e.a. desberdinak izaten dira euskaltegi batetik bestera. Ikastaro batzuk euskaltegietan bertan ematen dira eta beste batzuk, aldiz, bestelako etxe edo herrietan.
- Datorren 2013-2014 ikasturtean administraziooko taldeak osatzeari begira ez da kontuan hartuko langileak udako ikastaroan egin duen urratsa, baizik eta 2012-2013 ikasturte honetan gainditu duen azken urratsa.

9.- Matrikularen ordainketa

Langileek ez dute matrikularik ordaindu behar. IVAPek hartuko du bere gain ikastaroen matrikularen kostua. Barnetegien kasuan, baita ostatua eta mantenua ere. Ordea, IVAPek ez ditu bere gain hartuko bestelako gastuak, hala nola, ordezkapenak, joan-etorriak, materiala...

10.- Ikasleei buruzko informazioa eta datuen babesa

Euskara ikastaroa kudeatu ahal izateko ezinbestekoa da ikasleei buruzko hainbat datu pertsonal jasotzea, tratatzea, fitxategi batean biltzea eta dagokion sailari lagatzea. Horrela, IVAPek lanorduetan nahiz lanorduz kanpo ari diren ikasleen asistentzia eta ebaluazio datuak jasoko ditu, eta erakunde bakoitzari bere ikasleei dagozkienak jakinaraziko dizkio.

Lankidetzak Hitzarmenaren ondorioz jasoko diren datu pertsonalen tratamendua, bai Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, bai datu pertsonalak gordetzen dituzten fitxategi automatizatuen segurtasun-neurrien Araudiak (ekainaren 11ko 994/1999 Errege-dekretuaren bidez onartutakoa) xedatutakoaren arabera egingo da.

Lankidetzak Hitzarmenara biltzen diren langileek onartu egiten dute bertan ezarritako helburuak betetzeko jasoko diren datu pertsonalen tratamendua. Horrela, onartu egiten dute IVAPek datuak jasotzea eta dagozkien erakundeei jakinaraztea bai euren asistentziari eta ebaluazioari dagokienez, eta baita euren aprobeitxamenduari buruzko txostenei dagokienez ere. Onartu egiten dute baita ere, datu-lagapenak egitea Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari, normalkuntza planaren betetze maila ebaluatzeko txostenak egin ditzan, (Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 6. art.). Onartu egiten dute, azkenik, datu-lagapenak egitea Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzeko Erakundeari –HABERi–, (Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren seigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera).

Ikasleei buruzko datu-pertsonalak Datuak Babesteko Agentzian erregistratutako “Funtzionarioak euskalduntzea” izeneko fitxategian egongo dira. Ikasleek Fitxategiko datuetara sartzeko, datuok aldatu eta deuseztatze eskubidea erabili nahi izanez gero, IVAPeko Idazkaritza Nagusira jo dezakete: Donostia-San Sebastián kalea, 1; 01010 Vitoria-Gasteiz.

IVAP - 2013.05.02